

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruaren txostena, Parlamentuko webgunean gardentasun aktiborako neurrien ezarpenaren egungo egoerari buruzkoa, non azaltzen baita komenigarria dela zenbait zerbitzuek, berezkoa duten eremu materialean, informazioa aldioro prestatu eta eguneratzeko eta garaiz eta behar bezala argitaratzeko ardura hartzea.

Kontuan hartuta ezen, ezertan galarazi gabe geroago gardentasun aktiborako moduluari buruzko araudi orokorra onestea, ezinbestekoa dela webgune korporatiboko gardentasun moduluan jasotako egungo edo etorkizuneko osagai desberdinen argitalpenari beharrezkoa den babes formala ematea, horien publizitateak ez baitu araudiaren aldaketarik behar, ERABAKI DA:

1. Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuaren esku uztea Parlamentuaren webgunean ondoko alorrei dagozkien testu eta artxiboen argitalpen egonkor eta eguneratua: - Aurrekontuak eta kontuak. - Lehendakariaren ordainsariak. - Foru parlamentarien ordainsariak. - Langileen ordainsariak. - Parlamentu-taldeentzako diru-laguntzak.

2. Zerbitzu Orokorren esku uztea Parlamentuaren webgunean ondoko alorrei dagozkien testu eta artxiboen argitalpen egonkor eta eguneratua: - Langile-zerrendak eta -deialdiak. - Obrak, zerbitzuak eta horniketarako kontratatzea.

3. Legebiltzarreko zerbitzuen esku uztea Parlamentuaren webgunean hitzarmen guztien argitalpen iraunkor eta eguneratua. Zerbitzu bakoitzak argitaratuko ditu bere eskumeneko gaietan egin dituen hitzarmenak.

4. Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legedian jasotako aurreikuspen eta printzipioen esparruan, aurreko apartatuetan aipatu argitalpenak ez du galaraziko gardentasun publikoaren xederako garrantzirik gabekoak diren eta argitaratu beharreko dokumentazioan agertzen diren isilpeko datuak enkriptatzea, hala nola bizitokia, IFZ, banku-kontuen zenbakiak edo antzekoak.

4. Erabaki hau Parlamentuko zerbitzburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 25ean

LEHENDAKARIA

Alberto Catalán Higuera